

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	BANKADAKO EGITURAREN POSIZIONAMENDUA ETA KONTROLA	Iraupena	90
		Baldintzatua	
Kodea	UF0945		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen karrozeria		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Ibilgailuen egitura-elementuak.	Iraupena	200
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Egitura deformatuen egiaztapena.	Iraupena	40
	Bankadako konponketa.		70

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0125_2 IBILGAILUAREN EGITURA KONPONTZEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Bankada-mota desberdinak osatzen dituzten elementuak aztertzea, eta egiten duten funtzioarekin erlazionatzea.

E1.1 Kontrol positiboko bankadak osatzen dituzten elementuak aztertzea.

E1.2 Bankada unibertsal motak deskribatzea.

- Neurketa-sistema mekanikoak dituzten bankadak hautatzea.
- Kalibreen bankadetan erabiltzen diren erremintak deskribatzea.
- Bankaden funtzionamendua aztertzea, maila-galgaren arabera.
- Bankadaren zatiak identifikatzea, sistema optikoaren bidez.
- Bankaden funtzionamendua aztertzea, sistema elektronikoekin.

E1.3 Ibilgailua bankadari lotzeko behar diren tresnak identifikatzea.

- Behar diren tresnak hautatzea, ibilgailuaren fabrikatzaileak adierazitakoaren arabera.
- Euste-tresnak deskribatzea.
- Tresna-mota desberdinen funtzionamendua aztertzea.

E1.4 Fabrikatzaileak dokumentazio teknikoan erabiltzen duen sinbologia interpretatzea.

A2: Ibilgailua, bastidorea edo kabina bankadan jartzea, eta ainguratzeko puntuak edo eremuak zehaztea, fabrikatzailearen arabera.

E12.1 Ibilgailua, bastidorea edo kabina kontrol positiboko bankadan jartzea.

- Ibilgailua jartzeko jasogailu-mota aukeratzea.
- Ainguratzeko erabiltzen diren erremintak deskribatzea, ibilgailuaren, bastidorearen edo kabinaren arabera.
- Heltzeko baraila motak hautatzea, ibilgailuaren bastidorearen edo kabinaren arabera.

E12.2 Ibilgailua, bastidorea edo kabina bankada unibertsalean jartzea.

- Ibilgailua, bastidorea edo kabina jartzeko jasogailu-mota aukeratzea.
- Ainguratzeko erabiltzen diren erremintak deskribatzea, fabrikatzailearen neurketa-fitxen arabera.
- Heltzeko baraila motak hautatzea, ibilgailuaren bastidorearen edo kabinaren arabera.

E12.3 Ibilgailua, bastidorea edo kabina jasogailua duten bankadetan jartzea.

- Bankadan dauden txorrota-motak identifikatzea, eta haien erabilera azaltzea.
- Plataforma jasotzaileko txorrota hautatzea.
- Ibilgailua plataformara igotzeko behar diren tresna-motak deskribatzea.
- Barailak jartzeko behar den katu hidraulikoa hautatzea.

A3: Ibilgailuaren, bastidorearen edo kabinaren egoera kontrolatzea, eta fabrikatzaileak ezarritako kontrol-puntuak begiratzea.

E13.1 Kontrol positiboko bankadetan eta bankada unibertsalean egiaztapenak egitea.

- Ibilgailuaren, bastidorearen edo kabinaren neurketa-fitxa hautatzea.
- Fabrikatzailearen tresnak jartzea, espezifikazio teknikoari jarraituz.
- Ibilgailuaren, bastidorearen edo kabinaren kotak kontrolatzea, bankadak eta neurketa-fitxak adierazten dizkigun neurrien arabera.

E13.2 Jasogailua duten edo jasogailuan erakusle pantografikoa duten bankadetan egiaztapenak egitea.

- Ibilgailuaren, bastidorearen edo kabinaren neurketa-fitxa hautatzea.
- Egituran kaltetu gabe dauden eremuetan neurketa-sistema jartzea, neurri-fitxari jarraituz.
- Egituraren maila begiratzea, neurketa-sisteman jartzeko.

- Ibilgailuaren, bastidorearen edo kabinaren kotak kontrolatzea, neurketa-fitxari jarraituz.
- EI3.3 Mekanika muntatuko eta desmuntatuko ibilgailuetan egiaztapenak egitea.
EI3.4 Dorretxoetan eta esekidura-ainguraketetan egiaztapenak egitea.

A4: Egitura-deformazioa konpontzean behar diren tiroak eta kontratiroak zehaztea eta posizionatzea.

EI4.1 Tiroen eta kontratiroen norabide zuzenak zehaztea.

- Deformazioa aurrealdean, erdialdean edo atzealdean dagoen zehaztea.
- Deformazioak egitura-elementuei eragiten dien zehaztea.
- Egituran dagoen deformazioa aztertzea, tiroak eta kontratiroak zehazteko.
- Indarren eta momentuen konposizioa zehaztea, hartu beharreko norabidea eta egin beharreko indarra hautatzeko.

EI4.2 Konpontzean behar diren tiroak eta kontratiroak posizionatzea.

- Posizionamenduan behar diren erremintak eta tresnak hautatzea.
- Tiroa posizionatzea, deformatutako eremuaren eta neurriaren arabera.
- Kontratiroa posizionatzea, tiro-eremuaren arabera.
- Tiroan eta kontratiroan behar diren segurtasun-sistemak jartzea.

Edukiak

1. Ibilgailua, bastidorea edo kabina ainguratzeari lotutako kontzeptuak.

- Hauetan jartzeko metodoak:
 - Kontrol positiboko bankadak eta bankada unibertsalak.
 - Plataforma jasotzailea duten bankadak.
- Dauden baraila-motak, ibilgailuaren, bastidorearen edo kabinaren fabrikatzailearen arabera.
- Barailak jartzea, deformazioaren arabera.
- Fabrikatzailearen sinbologia interpretatzeko teknika.

2. Egituren kontrolean erabiltzen diren teknikak.

- Bankadan hauek jartzea:
 - Kontrol positiboko bankadetan, buru espezifikoak.
 - Bankada unibertsaletan, tiraderak eta orga lerragarrien funtzioa.
 - Maila-galgen bidezko kontrol-bankadetan, barra horizontalak eta paraleloak.
 - Laser izpi bidezko bankadetan erabiltzen den neurketa-sistema optikoa.
 - Neurketa-sistema elektronikoak dituzten bankadetan, aluminiozko txartelak eta ultrasoinu-sentsoreak.
 - Jasogailua duten bankadetan, erakusle pantografikoa.

3. Esekidura-dorretxoaren kontrolean erabiltzen diren teknikak.

- Dorretxoaren kontrolerako tresna espezifikoaren erabilera.
- Hauek jartzea:
 - Kontrol positiboko bankadetan eta bankada unibertsaletan, tresna espezifikoak.
 - Jasogailua duten bankadetan, esekidura-dorretxoetako erakusle pantografikoa.
 - Neurketa-sistema optikoa duten bankadetan, dorretxoak neurtzeko konexio-blokeak.

4. Ibilgailuen egiturei buruzko dokumentazio teknikoa.

- Bankadaren fabrikatzailearen sinbologia.
- Ibilgailuaren fabrikatzailearen sinbologia.
- Kontrol-fitxak.
- Esekidura-dorretxoaren kontrol-fitxak.
- Hauek erabiltzeko eskuliburua:
 - Jasogailua duen bankada.
 - Tiratzeko dorrea.
 - «L» motako eskuaira.

5. Egiturak posizionatzean eta kontrolatzean erabiltzen diren erremintak eta tresnak.

- Ainguratze bereziko baraila.
- Ainguratze unibertsaleko baraila.
- Erakusle pantografikoa.
- Kontrol positibo bidezko bankadako tresnak.
 - Unibertsala.
 - Maila-galga bidezkoa.
 - Neurketa-sistema optiko bidezkoa.
 - Neurketa-sistema elektriko bidezkoa.
- Fabrikatzaileak homologatutako kateak.

- Luzatze-barailak.
- Trakzio-pintza.
- Guraize-pintza autooratzaila.
- Ilargierdia.
- McPherson dorretxoetarako eskuz eragiteko osagaia.
- Trakzio-kako unibertsalak.
- Gomazko buruak.
- Elementuak beren lekutik ez mugitzeko tiranteak.
- Itzulketa-poleak.
- Segurtasun-eslingak.
- Dibidieta.
- Oinarri lauko ukondoa.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta lanbide-eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0944: Egitura deformatuen egiaztapena.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuetako karrozerien egituren mantentze-lanak